

HEZKUNTZA INKLUSIBOA SUSTATZEKO ELKARLANEAN

ERASMUS+ IN AS IN INCLUSION



2020-1-PT01-KA201-078552

PROIEKTUAR EN ESKULIBURUA ESKULIBURUA

Funded by the
Erasmus+ Programme
of the European Union





"Hezkuntza inklusiboa sustatzeko lankidetzan - Inklusioan ERASMUS+ Proiektua" bisita informalaren ondoren sortzen da, hainbat herrialdeetako hezkuntza-erakundeetara egindako beste ERASMUS+ proiektu batzuetan eta non, modu informalean, eskolek bazterkeriaren eta erorketaren aurka borrokatzeko duten arrakastarekin lotutako gaiak. ikasle mota ezberdinetatik jorratu ziren. Elkarrizketa hauetan argi geratu zen denok asko izango dugula ikasteko eskola eta nazio bakoitzak bere ikasleen inklusioa ikusteko duen modutik. Proiektua erakundeen hainbat ezagutza integratzen dituen apustu gisa agertzen da, bere eskumen inklusiboaren eremu sendoekin. Inklusio arrakastatsua sustatzeko Europako ikuspegian "IN as in Inclusion"-ek mundu osoko erronkak hartzen ditu haur eta gazteen prestakuntzarako, Europa mailan guztientzako eskola denaren kontzeptuak hobetzeko objektu gisa ekarriz. eta guztiontzat, eta erakundeetan hobetu dezakeguna benetako Hezkuntza Inklusiboa izateko.





Agrupamento de Escolas de Aljustrel

“Agrupamento de Escolas de Aljustrel” Aljustrel udalerrian kokatua dago eta bere egoitza nagusia Escola E.B. 2,3 Dr. Manuel de Brito Camacho eskola da. Aljustrel udalerria Portugalgo hegoaldean dago, Baixo Alentejo eskualdeko erdialdean. 458 km² ditu eta 4 komunitatetan banatuta dago: Ervidel, Messejana, São João de Negrilhos e União das Freguesias de Aljustrel y Rio de Moinhos.

Jarduera ekonomiko nagusiak nekazaritza, meatzaritza, merkataritza eta zerbitzuak dira. Azken urteetan, nekazaritza eta meatzaritza- eskualdeko diru sarrera handienak- asko hazi egin dira Alquevako presa ureztatze sistemaren garapenak eta harrobien berririkierak sortutako eragina dela eta. Aldaketa hauek populazioaren kondizio sozio-ekonomikoetan hobekuntza nabariak ekarri zituen eta merkataritza suspertu egin zen.

Gure eskola elkarteak eskola hauek osatzen ditu: Escola EB 2, 3 Dr. Manuel Brito Camacho (Egoitza Nagusia); Escola Secundária de Aljustrel; Escola Básica de Aljustrel (Centro Escolar Vipasca); EB1/ JI Messejana; EB1/ JI Ervidel; EB1/ JI Montes Velhos; JI de Rio de Moinhos.

Ikaslegoa Haur Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntza arteko ikasleek osatzen dute, Aljustrel udalerriko elkarteetatik etorritakoak. Oinarrizko Hezkuntzako 2. zikloaren hasieran, elkarteetako ikasleak eskola nagusira joaten hasten dira. Honek, ikasle gehienentzako eskolako autobusa edo beste garraio mota bat hartzea dakar; hori dela eta, eskolan egon behar izatea eragiten die. Eskoletan hezkuntza premia bereziak behar dituzten ikasle kopuru handia dago, eta hauei guztiei erantzuna ematen saiatzen zaie.





Istituto Professionale Statale "Federico II"

ISTITUTO PROFESSIONALE STATALE "FEDERICO II" institutua Ennan dago kotatua, Sizilia erdialdean. Lanbide Hezkuntzako eskola honek 14 eta 20 urte arteko 600 bat ikasle ditu eta 120 inguru irakasle eta laborategi laguntzaile. Hiru sektoreetako formazioa ematen du: Industria/Artisautza moda produkzio eta mantenuarekin; Zerbitzu Turistikoak sukaldaritza eta elikagai sektoreekin; eta Edariak ostalaritza sektorearekin.

Lanbide eskola den heinean, irakaskuntza praktikan oinarritzen da eta ikasleek beraien ezagutzak laborategian jartzen dituzte praktikan. Hilabete batez ikasleek ere praktikak egiten dituzte gure bazkide-formatzaileen fabriketan. Gure ikasleek ikasketak amaitutakoan zuzenean lan-munduan txertatzen dira. Erasmus proiektuan parte hartzeak gure ikasleak etengabeko ikaskuntzan motibatu ahal izateko aukera da. Eskaintza profesionala nagusiaz gain, gure ikasketa planak ekintza sozial ugari ditu. Kalitate goreneko zerbitzuak eskaintzeko, gure eskola Kore Unibertsitatearekin, ITS, Confucio erakunde txinatarrarekin eta bertako erakunde komunitarioekin elkarlanean dihardugu; Gure ondare kulturalaz harro gauden arren, atzerapen ekonomiko baten zailtasunak bizitzen ari gara, bertako enpresa produktiboen amaiera suposatzen ari dena. Hori dela eta, gure fabrikak eta beraien produktuak promozionatzen saiatzen ari gara proiektu askotan inbolukratuz helburu nagusi honekin: produktu hauen ezagutza sustapena eta difusioa gure eskolak antolaturiko ekintza guztietan. Azken urteetan, inmigrante asko iritsi dira eta ikasle inmigrante kopuru garrantzitsua dugu. Gure gaitasun sozialen formazioan espezializatu gara gure gaitasun interperpersonalak hobetuz.





CIFP Tolosaldea LHII

Tolosaldea LH Ikastetxe Integratua Tolosan kokatutako hezkuntza erakunde publikoa da.

Zerbitzuak:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza Ondoko ikasketak, Lanbide Heziketako ikasketak: Erdi- mailako eta Goi- mailako zikloak.**
- Etengabeko prestakuntza (langileentzat) eta Lanerako prestakuntza (langabeentzat)**
- Enpresetan praktikak egiteko programak**

Ikastetxeak 16 eta 20 urte arteko 520 ikasle ditu eta hainbat departamentutan banaturiko 80 irakasle: Elektrizitatea, Mekanika, Galdaragintza, Mantenua, Administrazio eta Finantzak, Merkataritza, Ingelesa, Informatika, Mekatronika eta Lan Prestakuntzarako Orientabidea.

Zuzendaritza taldea 11 kidek osatzen dute, zuzendaria eta beste 10 langile.

Ikastetxea Tolosan kokatuta dago, Gipuzkoako udalerrri bat da, Euskal Autonomi Erkidegoan, Espainia. Oria ibaiaren bailaran kokaturik, 19041 biztanle ditu (2016) Sektore industrial nagusia metalurgiaren inguruan dago eraikia. Osasun zerbitzuak, banketxeak, zerbitzu komertzialak eta judizialak ere baditu.

Ikasketa esparruaren arabera, lanbideratze tasak desberdinak dira. Izan ere, kontuan hartu beharra dago, badaudela aukera gutxiago dituzten ikasle-taldeak ala lanbide bat lortzeko zailtasun bereziak dituztenak. Ez-gaitasun mental eta fisikoak dituzten ikasleak, hezkuntza zailtasunak, oztopo ekonomikoak, diferentzia kulturalak, inmigranteak, oztopo sozialak, oztopo geografikoak etab. 2018-2020 zentroaren plan estrategikoaren haria jarraituz, gure helburua inklusioa suspertzea eta oztopoak gainditzea.

Nazioartekotza eskolako plan estrategikoaren 5 lerroburu nagusietako bat da.





ENEEGYL Patras

Patraseko Gimnasio eta Lan Lizeo Bereziak (ENEEGYL Patras) behar bereziak dituzten ikasleei (autismoa, dislexia, portaera zailtasunak eta emozionalak) hezkuntza eskaini eta lan-heziketan jarduteko aukera ematen die. Orokorrean, ikastetxeak 150 ikasle eta 35 irakasle ditu. Horretaz gain, psikologo bat, logopeda bat eta langile- laguntzaileak daude. Gure ikasleak ondorengo espezializazioetan graduatzen dira:

- [1] Hotz- Bero eta Aire Egokitueta instalazioen Laguntzaile- Teknikoak
- [2] Eraikin eta Industria- Instalazio Elektrikoetako Laguntzaile- Teknikoak
- [3] Artelanen Kontserbazio eta Birgaitze Laguntzaile- Teknikoak.
- [4] Zerbitzu Logistiko eta Finantzia-Zer[bitzuetako Laguntzaile- Teknikoak.
- [5] Elikagaien Teknologian Laguntzaile- Teknikoak (Elikagaien teknologoa).
- [6] Osasun eta Gizarte- Laguntzaileak, erizaintzan, laborategi eta farmaziako espezialitateetan.

Gure xede-taldea 12 eta 24 urte arteko ikasleak dira, gizarte- bazterketa arriskuan eta gure eskualdeko egitura sozialetik kanpo daudenak. Gure ikasleek zailtasun handiak izaten dituzte beraien ikasketen ondoren lan bat aurkitu ahal izateko, behar bereziak dituzten pertsonentzat diruz- lagundutako programa egokiak ez daudelako. Ikaslegoaren gehiengoa testuinguru behartsu batetik dator. Horregatik, eta gaur egungo egoeran gehiago kontuan hartuta, beraien laneratzea zailagoa suertatzen da, ezinezkoa ez esatearren. Lan perspektiba eskasak direla eta, ikasleek euren gaitasunak erakusteko aukerarik ez dute. Hezkuntza premia bereziak dituzte eta gehiengoek banakako hezkuntza programa bat jarraitzen dute, IKT teknologien erabilera modu erabilgarriena izanik.





Balikesir Adan Menderes Anadolu Lizeoa

Ikastetxea garatu gabeko zonalde batean kokatuta dagoen Institutu Publiko orokorra da, Turkiako Baliekesier hiriko zentrotik urruti. Gure eskolan zuzendari bat badago, lau zuzendaritza- laguntzaile, 50 irakasle eta 20 langile daude; gainera gure jarduna 22 ikasgelatan egiten dugu. Guztira 615 ikasle daude. Gure eskolak barnetegi bat du. 260 ikasle ostatu hartzen dute barnetegian, gehienak landa eremutik etorritakoak dira. Familien hezkuntza-maila oso baxua izateak gure ikasleen bizitza- mailan eragin negatiboa du. Gure eskolak barnetegi bat izateak familia disfuntzionalek euren seme-alabak bertara bidaltzeko aukera ematen die. Honek ikasle jazarpena, eskola- uztea eta adin gazteetan ezkontzea ekiditzen du.

Zoritxarrez egoera sozio-ekonomiko horiek ikaskuntza arrakasta gutxitzen dute eta goi-mailako ikasketak ikasten duen ikasle tasari negatiboki eragiten die. Eskolako oinarrizko ideia ikasle bakoitza garrantzitsua dela sentiaraztea da; "gizakia" dela sentitzea baita; bere identitatea, izaera, bizitako esperientziak, generoa eta arrakastak kontuan hartu gabe. Helburu hau lortzeko, Agentzia Nazionaletik eta Europar Batasuneko hezkuntza programetatik esperientzia lortzea da eta gure bizipenak harremanak ditugun gure eskualdeko eta herrialdeko eskolekin partekatzea da. Ikasleek euren barnean duten potentziala aurkitzen eta erakusten lagundu nahi diegu.





Ekonomiska sola Novo Mesto

Novo Mestoko Ekonomia Eskola Esloveniako hego-ekialdean dago kokatua, Dolenjska eskualdean. Bertan industria farmazeutiko, kotxe eta eraikuntza industriak garrantzitsuak daude.

Gure eskolak 474 ikasle ditu eta institutuak 107. Gure eskolak Lanbide Heziketa eta hezkuntza orokorra eskaintzen du ekonomiaren eta komunikabideen alorretan. Behar bereziak dituzten ikasle batzuk baditugu (20 bat).

15 eta 19 urte arte dituzten gure ikasleek ondorengo ikasketak egin ditzakete: Ekonomia Teknikaria, Komunikabideetan Teknikaria, Saltzailea, Hezkuntza Teknikaria. Gure ikasleak Dolenjska, Bela Krajina Posavie eta Kočevje inguruetatik datoz. Ikasle guztietatik 2/3 egunero eskolara joaten dira, eta gutxiengo batek barnetegian bizi dira (%5a inguru)

Gure eskolak 70 urteko ibilbidea du ekonomia alorrean. Gure inguruan, ondo antolatuta dagoen eskola bat izateagatik ezagunak gara, irakasle kualifikatuak dituen. Gure eskolak ikasleei eduki teoriko eta praktiko anitzak eskaintzen dizkien 61 irakasle ditu. Gure eskolan graduatu ziren ikasleen artean, gaur egun ezagunak diren enpresaburu eta politikoak aurki ditzakegu.

Ekonomia- teknikariak fabrikazio eta zerbitzu enpresetan, erakundeetan eta administrazio publikoan lan egiteko trebatuak daude. Kontabilitatean, finantzetan, merkataritzan, banketxeetan, txikizkako merkataritzan, postabulegoetan, laguntzaile bezala zein beste lanpostu batzuetan lan egiteko trebakuntza dute.

Komunikabideetako- teknikariak 3 esparrutan lan egiteko trebatuak daude: Komunikabideetan laguntzaile bezala, irrati emisora eta telebista kateetan. Aurreinpresio operatzaile bezala eta Web diseinatzaile bezala. Diseinu grafikoa, Komunikabide eta multimedia produktuen diseinua, diseinua eta inpresioa, argazkigintza, bideo-kamerazko grabazioa, web diseinua, animazioa eta dokumental filmaketa ikaten dute.





Irakasle eta Hezitzaileen Sindikatu Indepedientea

SIPE Formazio Zentroa Portugal osoan eraturik dago eta bere eskaintza irakasleek euren praktikei buruzko erreflexio bat egitera bideratuta dago, berrikuntza pedagogiko eta eskoletan gertatutako momentu arazotsuak gainditzeko formazioa eskainiz.

Formazio Zentro honen helburu nagusia formazioa eskola testuinguruetara gerturatzea da, formazioa ematea, ikerketa eta berrikuntza pedagogikoa sustatzea eta irakasleen garapen profesionala bultzatzea da; ezagutzen egunerokoan, hedapena eta dibertsifikazioan sustatuz.

Irakaslegoaren eskuetarara iritsi daitekeen edozein esparru eta modalitateko formazioa hedatzen zaie, Bragako Etengabeko Prestakuntzako Kontseilu Zientifiko Pedagogikoak ziurtatutakoa, ikasturtean zehar zabaldu eta garatzen dena.

Formazio Zentroak irakasleen beharrei erantzuteko protokoloak finkatzen ditu taldeekin eta Goi Mailako Hezkuntza erakundeekin. Bertan, Hezkuntza Ministerioak gomendutako ekintza eta formazio planak daude sartuta. Formazio zentroak formazio eskaintza anitza du, ezagutza zientifiko zabala eta komunikazio eta interakzio gaitasun handiarekin.




ESKOLEN ARTEKO KONPARAKEA




Funded by the
Erasmus+ Programme
of the European Union




How many students are there in the school?




What is a student weekly hours Schedule in your country?




Number of students with SEN




Number of Students per classroom? (Average)



How many students are in need of action from the point of view of inclusive management?
(Number of Students in Need of inclusive measures)



Which is the number of students under the following groups:







“Hezkuntza inklusiboa sustatzeko elkarkidetza” IN as in Inclusion Erasmus+ projektuak beste proiektu batzuetako bisita informaletatik sortutako proiektua da. Beste herrialde batzuetako erakundeetan, eskola eskusioa eta ikasle mota desberdinen eskola porrota ekiditu ahal izateko hainbat gai arrakastatsu landu izan dira. Bisita horietan, argi geratu zen eskola eta herrialde bakoitzak beraien ikasleen inklusioa nola kontuan hartu eta landu egiten duten eratik asko ikasi behar dugula, eskola bakoitzak bere gaitasun inklusiboko ezagutzak eta praktikak nola integratzen diren kontuan hartuz. "Hezkuntza inklusiboa sustatzeko elkarkidetza" IN as in Inclusion Erasmus+ programak haur eta gazteen benetako formazio inklusiboa hobetzeko eta gure erakundetan nolako praktikak hartu ditzakegun inklusio hori edukitzeko aintzat hartzen ditu.




Classification of Students Difficulties




How many teachers are there in the institution?




How many teachers are there in the institution?




Number of supporting teachers in the school? (Percentage of Support Teachers out of the total number of teachers)




Number of supporting teachers in the school? (Percentage of Support Teachers out of the total number of teachers)




How many staff persons are there in the institution?




How many staff persons are there in the institution?



How many specialised personnel assist students with special needs?



How many specialised personnel assist students with special needs?



AURKIBIDEA

01 - PORTUGAL

Ohiko ikastaroen eta ezgaitasunak eta gutxiengo etnikoak dituzten ikasleei zuzendutako ikastaro berezien oinarriak eta gutxiengo etnikoen inklusioa ohiko eskola portugaldarretan.

02 - ITALIA

Inklusioa nazioarteko proiektuen parte-hartzearen bitartez eta ikastaro kulinarioen arrakasta bai eskolan, komunitatean eta mundu osoan zehar.

03 - TURKIA

Nesken inklusioan eta eskolako uzte-tasa ekiditzeko ikastaro bereziak.

04 - GREZIA

Ikasketetan aurrera eramateko motibazioa ikasketa teknikoetan ikasle ezgaituen inklusioaren bitartez.

05 - ESPAINIA

Hezkuntza integrazioan aplikatutako metodologiaren eta ezagutzajabetzaren arrakasta, ikasle bakoitzarentzat eskaintza egokia aukeratuz.

06 - ESLOVENIA

Errefuxiatu eta minorien inklusioa eskola ekintzetan.



Funded by the
Erasmus+ Programme
of the European Union




HEZKUNTZA INKLUSIBOA
SUSTATZEKO ELKARLANEAN

ERASMU+
IN AS IN INCLUSION



OHIKO PROGRAMEN
OINARRIAK
EZGAITASUN ETA ETNIA
DESBERDINETAKO
IKASLEAK INKLUSIOAN
LAN EGITEKO

Eskolak hezkuntza inklusiboko erronka dialektikoen parte dira, legislazioak dioena eta errealitate praktikoaren arteko hutsunea beteaz. Beraz, ikasle guztien egonaldia eskolan bermatzea ezinbestekoa da. Hezkuntza inklusiboaren premisa hezkuntzaren adopzioa ikuspuntu humanistiko batetik bermatzen dago, konpetentziak kontuan hartuz eta ezgaitasunak baztertuz, interdisziplinatearen kontzeptua beraganatuz. Ikasle guztientzat esperientzia positiboen eratzean dauden ezagutzak arteko partekatzea eta testuinguru desberdinetako ikasleen artean barneratzean datza eta ikasketa prozesuan aurrera konzientzia sortuaz.



ALJUSTREL ESKOLA/SIPE AURKEZPENAK



**PORTUGALGO ERASMUS+ NA,/DGESTE ALENTEJO/
CFAE TERRAS DE MONTADO/ BEJAKO INSTITUTU
POLITEKNIKOA - OSASUN GOI-MAILA ESKOLA -
AURKEZPENAK**



**ETIC ALGARVE/BEJAKO INSTITUTU POLITEKNIKOA -
OSASUN GOI-MAILA ESKOLA - AURKEZPENAK**

Helburuak:

- Pedagogia Garatzea.
- Edukiak sortu eta Eskaintzea.
- Ikasgelan Baliabideak eta Teknologia erabiltzea.
- LH zentro eta ohiko erakundeentzako beste helburu garrantzitsuak;
- Kurrikulumean ikasketen garapen unibertsaleko oinarriak aplikatzea.
- Praktika onak eta esperientziak partekatzea.
- Azpiegitura politiko eta edukatiboen errealitateari buruzko hausnarketa.

NOLAKOA DA HEZKUNTZA INKLUSIBOA PORTUGALEN?

MARKO LEGISLATIBOA

OINARRIZKO LEGEDIA

- Oinarrizko eta Erdi-mailako Irakaskuntzen Kurrikuluma.
- 55/2018 Dekretu Legea Uztailaren 6koa.
- Haur Hezkuntzarako Orientazio Kurrikularra.
- Gizarterako Hezkuntza Estrategia.
- Hezkuntza inklusiboa: DL 54/2018 uztailaren 6koa.

IKASLE- PROFILA

ERABAKI GUZTIAK BILTZEN DITUEN HEZKUNTZA ERRENFERENTZIA

- Oinarri humanista duen profila
- Ikaskuntza guztietan arrakasta lortzeko irakaskuntzan hezi egitea
- Garapen iraunkorra lortzeko laguntza eman
- Irakaskuntzarako koherentzia eta flexibilitatea Heztea
- Moldagarritasun eta kemenarekin jardun
- Egonkortasuna ezarri
- Ezagutza baloratu

**54/2018 LEGE DEKRETUA, UZTAILAREN
6KOA (HEZKUNTZA INKLUSIBOAREN
ERREGIMEN JURIDIKOA)
116/2018 LEGEA, IRAILAREN 13KOA
(54/2018 LEGE DEKRETUAREN LEHEN
ALDAKETA, UZTAILAREN 6KOA)**

Eskola- jardueraren erdialdean kurrikuluma eta ikaslearen ikaskuntza daude. Premisa honetatik abiatuz, lege dekretu honek ardatz orientagarri bezala eskola bakoitzak bere ikaslegoaren aniztasuna aktibo bezala aintzat hartu behar du, ikasleen arteko diferentzia horri arreta emateko bide desberdinak aurkituz, irakaskuntza prozesuak ikasle bakoitzaren ezaugarri eta egoeretara moldatuz eta aukerako baliabide guztiak erabiliz, guztiek eskola- komunitatearen bizitzan parte hartu eta ikasteko.



**EBALUAKETA PROZESUAN
MOLDAKETAK**

Informazioa jaso ahal izateko tresnen aniztasuna, inkestak, entrebistak, bideo edo audio grabazioak:

Azalpenak formatu ulerterrazean, adibidez Braille, kuadro eta mapak erliebean, digitalak;

LGP-aren interpretazioa;

Laguntza- materialen erabilera;

Frogak egiteko denbora gehigarria;

Erantzunen transkripzioa;

Ariketen irakurketa;

Ikasgela bereizi baten erabilera;

Zaintzapeko geldialdiak;

Ariketen identifikazioa koloreatako kodigoa



**IKASKETAKO LAGUNTZA
ZENTROAK**

Eredu honen ezaugarrietako bat interbentzio- mailaren arabeko antolaketa da, mota, intentsitate eta maiztasunean aldaketak eduki ditzazketenak :

**Giza
baliabideak**

**Baliabide
materialak**

**Ezagutzak eta
gaitasunak**



Eredu honen ezaugarrietako bat interbentzio-mailaren araberako antolaketa da, mota, intentsitate eta maiztasunean aldaketak eduki ditzaketenak, ikasleen erantzunaren arabera.

MAILA INTENTSIBOKO NEURRIAK

- Gaikako ikasturteko asistentzia
- Moldaketa kurrikular esanguratsuak (NHP- Norbanakoaren hezkuntza programa)
- Norbanakoaren trantsizio plana
- Estrukturatutako estrategia didaktiko eta metodologiaren garapena
- Autonomia pertsonal eta sozialen gaitasunen garapena

NEURRI SELEKTIBOAK

- Bide kurrikular Desberdinak
- Adaptazio kurrikular ez-esanguratsuak
- Laguntza psikopedagogikoa
- Ikasketaren aurre hartze eta indartzea
- Tutore laguntza

PREBENTZIO NEURRI UNIBERTSALAK

- Bereizketa Pedagogikoa
- Adaptazio Kurrikularrak
- Aberaste Kurrikularra
- Portaera prosozialaren sustapena
- Talde txikitik portaera eta ikuspuntu akademikoaren eskuhartzea
- Denboran zeharreko laguntza tutorial prebentiboa


IKASKETARAKO DISEINU UNIBERTSALA

Ikasle guztien beharrei zuzendutako neurri unibertsalak hartzeko erantzuten dion aukera. Ikasle guztien ikasketak testuinguru irrisgarri eta eraginkorra bezala eraikitako estruktura eta orientazio modeloa definituz, Ikasgela barnean planifikazio eta funtzio tresna garrantzitsuak bilakatuta.



3 ORDUKO FORMAKUNTZA ETA MATERIALAK

**OHIKO IKASTAROETAN ETA EZGAITASUNAK
DITUZTEN IKASLEEKIN ETA GUTXIENGO
ETNIKOEN IKASTARO BEREZIJETAN INKLUSIOA
AURRERA ERAMATEKO OINARRIAK OHIKO
ESKOLA PORTUGALDARRETAN .**



https://drive.google.com/drive/folders/1wt_EhKacl_7DrSHDgTb-BdXHfCPU3r0E?usp=share_link



ISTITUTO PROFESSIONALE STATALE " Federico II "Enna

“Federico II”

Lanbide Eskolak 3 ikas lerro dituen eskola da:

- 1)Enogastronomia eta ostalaritza.
- 2)Mantenua eta Hotel harrera
- 3)“Made in Italy” industria eta artisautza,

Gure eskolak diploma bat lortzeaz gain, lan trebakuntza bat lortzeko aukera ematen du. Eskola kokatuta dagoen lurralde- testuingurua eta testuinguru ekonomiko- soziala laborantzan eta zerbitzuetan oinarritzen da. Ikasleak Enna eta bere probintziatik datoz.

Eskolak ezgaitasunak eta behar bereziak dituzten ikasle askoren inklusioa sustatu ahal izateko hainbat ekintza antolatzen ditu, eskola-komunitate osoa inplikatur.



**INKLUSIOAREN IKUSPUNTU
HOLISTIKOA**

**PERTSONEN, ERAKUNDE ETA LURRALDEEN
INKLUSIOA.**

**BEECOP-EKIN EGINDAKO EKINTZA
KOOPERATIBOA HORREN
ADIERAZGARRI GISA.**

INKLUSIOARI BURUZKO LEGE ITALIARRAK



Inklusioari buruzko lege italiarrak Europako aurreratuenak dira. Lehen legea 1977koa da irakasle-laguntzaileen figuraren sorrerakin.

Irakasle- Laguntzailea hezkuntza ezagutzak pedagogiko eta psikologikoak dituen irakasle espezializatua da. Inklusio prozesurako estrategiak garatzen ditu eta inklusio ekintzak aurrera eramateko dokumentuak betetzen laguntzen du. 104/92 Legea oso lege garrantzitsua da integrazio soziala sortu zuelako.





HEZKUNTZA INKLUSIBOA SUSTATZEKO ELKARLANEAN

ERASMUS+ IN AS IN INCLUSION

Zer esan nahi du inklusioak gure eskolarako?

Ikasteko arazoak dituen ikasle guztiek klasean bere ikaskideek jarraitzen duten ibilbide didaktiko berbera egiten jarraitzea esan nahi du. Ibilbide didaktiko hau pertsonalizatu edo norbereganatuko da behar espezifikoaren arabera eta irakasle- laguntzaile eta klaseko irakasle arteko kooperazioan oinarritzen da.

Europar agentziak hezkuntza bereziaren garapenerako 2012an sortutako "Irakaslego inklusiboaren profila" erreferentzia bezala hartuta, baloreak partekatzen aritu gara. Hona hemen gure ikas- testuingurua bereziki inklusiboa egiten dituen oinarriak.

1. Diferentzak baliabide bezala kontuan hartu eta esplikatzea.

2. Gure ikasleengana zuzentzen garen modua zaindu: Inor ez da argia izatera iristen baldin eta ez badiogu "arretarik" ipintzen.

3. Arazoei aurre egiteko eta "praktika onak" partekatzeko helburuarekin kooperatu eta kolaboratu.

4. Etengabeko prestakuntza bitartez irakaslea eguneratu eta artatzea, ikasleen "ikasten ikasiz" egoteaz gain, irakasleen "ikasten ikasiz" badago.

5. Ikasleek euren garapenerako garrantzitsuak eta erabilgarriak kontsideratzen dituzten ikasketa ekintzak identifikatzea.

6. Irakasle, ikasle eta familiekin estrategiak partekatzea.

Behar berezizat hurrengo zailtasunak hartzen dira (fisikoak, emozionalak, portaerakoak edo ikasteko desgaitasunak edo zailtasunak). Behar hauek bakarkako laguntza eskatzen dute. Beste ikasle batzuk badaude garapen nahasmenduak dituzten ikasleak, dislexikoak edo zailtasun ekonomiko eta sozialak.

2015 urtean, "Special minds lab" hezkuntza laborategi iraunkorra sortu genuen, honek ikasketa estrategia alternatiboak eskaintzen ditu gure ikasleek "eginez ikasten" dutelako.

Gure HELBURUAK ondorengoak dira:

Erlazio positiboak sortzea

Ekintza indibidualak eta talde-ekintzak partekatzea

Aurrez aurreko interakzioa

Bizitarako gaitasunak lantzea

Laborategi hau ikastean zehar irekita egoten da artisau- lanak eta pastelak prestatzen ditu festa eta ospakizunetarako.

Talde kooperatiboetan lan egin dugu rol- jokoak erabiliz.




3 ORDUKO FORMAKUNTZA ETA MATERIALAK

INKLUSIOAREN IKUSPUNTU HOLISTIKOA

**PERTSONEN INKLUSIOA, ERAKUNDEEN
INKLUSIOA, LURRALDEEN INKLUSIOA.**

**HORREN ADIERAZGARRI GISA BEECOP-
EKIN DUGUN LANKIDETZA**



[https://drive.google.com/drive/folders/1qF8GwC3M
Kd3Wr_icjteFgUba1216_H8p?usp=share_link](https://drive.google.com/drive/folders/1qF8GwC3MKd3Wr_icjteFgUba1216_H8p?usp=share_link)

Funded by the
Erasmus+ Programme
of the European Union



BALIKESİR ADAN MENDERES ANADALU INSTITUTUA



ESKOLA PORROTA GOIZTIARRA EKIDITZEKO ETA
NESKEN INKLUSIOAREN INGURUAN
PROGRAMA BEREZIAK


Inklusibitatea modu desberdinetan ulertu daitekeen kontzeptu bat da. Hezkuntza inklusiboa, gauza guztien gainera, ulertzeko era bat da. Gaur egun, nazioartekotzetik industriara, politikatik hezkuntzara... hainbat eratan izendatu daiteke. Azken urteetan, hezkuntza inklusiboari buruz geroz eta gehiago hitz egiten da. Hezkuntza inklusiboa ikasle bakoitzaren ikaskuntza prozesuan eta garapenean eskatzen duen ulertzeko era bat da, hezkuntza testuinguru desberdinetan ikasleen sarrera eta partehartzea, beraien interesak, ezaugarriak eta beharrak kontuan hartu behar dira. Hori dela eta, erlazionatuta dauden profesionalen laguntza eskatzen duen prozesua da. Hezkuntza inklusiboa, programa, ikasketa plana edo ikuspuntu bat baino gehiago da, ulertzeko- modu bat da.



TURKIAN HARRERA



BISITA OFIZIALAK



Hezkuntza inklusiboaren helburuak Turkian

- Ikasleen indarguneak nabarmentzea.
- Testuinguru edukatibo diskriminatzaileetatik eratorritako ikuspuntu diskriminatiboak ekiditea.
- Ikasleen arteko diferentziaz gain, eskolara etortzea ikasleentzat onuragarria dela konturatzen saiatzea.
- Garapen eta arrakasta akademikoa sustatzea.
- Familiatik kanpoko testuinguruetan erlazio eta interakzio sozialen garapena bultzatzea.
- Partehartze zibikoa, enplegua eta bizitza komunitarioa inklusiboak izan daitezela egitea.
- Elkarbizitzan ikasle guztien partehartzea bermatzea.
- Ikasle guztiek irakasle, guraso eta kideen guztien babesa jasotzen dutela bermatu.

NOLAKOA DA HEZKUNTZA INKLUSIBOA TURKIAN?

MARKO LEGISLATIBOA

- **2018AN ARGITARATUTAKO HEZKUNTZA BEREZIETAKO ZERBITZUEN ARAUDIA**
- **6458 ZK. ATZERRITAR ETA NAZIOARTEKO BABES LEGEA**

TURKIAKO KONSTITUZIOA

“Pertsona oro legearen aurrean iguala da, bere hizkuntza, arraza, sexua, iritzia, pentsaera, erlijioa eta antzeko arrazoiak kontuan hartu gabe”.

HEZKUNTZA INKLUSIBOA TURKIAN

- Hezkuntza berdintasunerako ikasle guztien ezaugarriak kontuan hartu
- Ikasleen ezaugarri estruktural eta funtzionalekin bat egiten duten hezkuntza testuinguruak.
- Ikasle guztien hezkuntza garapena eta egokitzapena beraien partehartzea eta beharrak kontuan hartu eta partehartzea ziurtatu.
- Aniztasuna ezinbestekoa da eta banakako diferentziak ohikoak dira; hauek ez dira ezaugarri distintibotzat hartzen ikasle guztiek eskolarekiko partaidetza ziurtatzeko hartu behar diren neurriak hartzea.
- Eskolako ikasle guztiek parte-hartu ahal izateko neurriak hartu

IKASKETARAKO LAGUNTZA ZENTROA

- Eskola eta langile inklusiboak
- Ikasgela inklusiboaren ingurua

Hezkuntza inklusiboa eta interesatuak

Irakasleak
Familiak
Eskola administratzaileak
Gobernuz Kanpoko Erakundeak


Ebaluazio inklusiboa

- 1. Ebaluazio bera diseinu on batekin erreforzatu.**
- 2. Programazio barnean ebaluazio- tresna desberdinak erabili.**
- 3. Ebaluazio- aukera desberdinak txertatu.**
- 4. Azterketa inklusiboak diseinatu.**
- 5. Teknologia nola lagundu dezakeen kontuan hartu.**
- 6. Ikasleak ebaluazio- prozesuan prestatu, inplikatu eta lagundu.**
- 7. Aplikazioa ikusi, errebisatu eta partekatu**

3 ORDUKO FORMAKUNTZA ETA MATERIALAK

ESKOLA PORROTA GOIZTIARRA EKIDITZEKO ETA NESKEN INKLUSIOAREN INGURUAN PROGRAMA BEREZIAK

.



https://drive.google.com/drive/folders/18lo1JOjrOsVb6nnDuUxsHbEjqF8Q_-9Y?usp=share_link

Funded by the
Erasmus+ Programme
of the European Union



ENEEGYL Patras

**IKASTEKO MOTIBAZIOA ETA BESTE
EDOZEIN ESKOLA-JARDUERA, LANBIDE
HEZIKETAKO IKASTAROETAN IKASLE
EZINDUAK SARTUZ**



LEGERIA ETA POLITIKA

Lege-testuinguru orokorra

Herritar guztientzako eta estatuko hezkuntza-sistemaren maila guztietarako irakaskuntza doakoa izatea Greziako Estatuaren printzipio konstituzionala da. Zehazki, Greziako Konstituzioak (16. artikulua, 2. paragrafoa) honako hau ezartzen du:

Hezkuntzaren helburua da greziar guztien prestakuntza morala, intelektuala, profesionala eta fisikoa, kontzientzia nazionala eta erlijiosoa garatzea eta herritar aske eta arduratsuak sortzea.

Grezian hezkuntza derrigorrezkoa da 4 eta 15 urte bitartean.

1566/1985 Legeak lehen eta bigarren hezkuntzaren egitura eta funtzionamendua deskribatzen ditu. 1. artikulua bikoitia. 1 lehen eta bigarren hezkuntzaren helburua da:

... hezitzaile guztien indar mental eta psikosomatikoen garapen global, harmoniatu eta orekatuan laguntzea, eta pertsona independente izateko eta sormenez bizitzeko gaitasuna ematea, sexua eta jatorria edozein direla ere.

INTEGRAZIO- POLITIKAK

- -Ikasleei banakako laguntza ematea eskola arruntetan (laguntza paraleloa, laguntza bereziko langileak, eskolako erizainak)
- - Eskola bereziak, eskola inklusiboak eta horien laguntza-egiturak indartzea (Hezkuntza Laguntzarako eta Aholkularitzarako Zentroak - KESY, Hezkuntza Laguntzako Eskola Sareak - SDEY, Ebaluaziorako eta Hezkuntza Laguntzarako Diziplinarteko Batzordeak - EDEAY), langile egokiak kontratatuz;
- - Hezkuntza-material digitala eta eskuragarria garatzea, desgaitasuna eta/edo hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen lehen hezkuntzarako.

SORMENEZKO IKASKUNTZA



PRAKTIKEN PROGRAMA

Lanpostuko
prestakuntza -
Egiaztatutako lan-
esperientzia - Lan-
merkatuan sartzea -
Iraupen luzeko
ikaskuntzek aukera bat
eskaintzen diete lan-
bizitzan desgaitasuna
duten graduatuei
etorkizuneko lan-
bizitzarako trantsizio-
fasean aholkatzeko.



ENPRESA ONLINE



ΠΑΖΑΡΙ
ΣΧΟΛΙΚΩΝ
ΔΡΑΣΕΩΝ

ΤΕΕ ΕΙΔΙΚΗΣ ΑΓΩΓΗΣ ΠΑΤΡΑΣ

Α' & Β' ΒΑΘΜΙΔΑΣ
ΣΥΛΛΟΓΟΣ ΓΟΝΕΩΝ
ΚΑΙ ΚΗΔΕΜΟΝΩΝ

π. ΓΕΩΡΓΙΟΥ
ΠΑΤΡΑ
ΙΟΥΝΙΟΣ
2016

ERASMUS MOBILITATEAK

Aukera aparta eskaintzen dute HPBak dituzten ikasleek Europako kulturari eta komunikazioari buruzko ezagutzak zabal ditzaten eta bizitza osorako esperientzia baliotsua eskura dezaten.



ΕΝ.Ε.Ε.ΓΥ.-Α. ΠΑΤΡΩΝ
ΕΝΙΑΙΟ ΕΙΔΙΚΟ ΕΠΑΓΓΕΛΜΑΤΙΚΟ
ΓΥΜΝΑΣΙΟ-ΛΥΚΕΙΟ ΠΑΤΡΩΝ



"Επίσκεψη σε σχολείο εταίρο (Istituto Comprensivo "Falcone Cascino")
με τον οποίο εκπονήθηκε έργο eTwinning, στην πόλη
Piazza Armerina της Σικελίας-Ιταλία"



17-21 Οκτωβρίου 2018

ΕΠΙΣΚΕΨΗ στα πλαίσια της πρωτοβουλίας της Ευρωπαϊκής Επιτροπής
«Move2Learn, Learn2Move» & του προγράμματος eTwinning
(έργο Stopcyberbullying4kids// M2378 to M2389)

ΕΝ.Ε.Ε.ΓΥ.-Α. ΠΑΤΡΩΝ
ΕΝΙΑΙΟ ΕΙΔΙΚΟ ΕΠΑΓΓΕΛΜΑΤΙΚΟ
ΓΥΜΝΑΣΙΟ-ΛΥΚΕΙΟ ΠΑΤΡΩΝ



"Επίσκεψη στην πόλη
του Βελιγραδίου-Σερβία"



24-29 Σεπτεμβρίου 2018

ΕΠΙΣΚΕΨΗ στα πλαίσια της πρωτοβουλίας της Ευρωπαϊκής Επιτροπής
«Move2Learn, Learn2Move» & του προγράμματος eTwinning,
Stop Bullying// M2407 to M2418

ΧΟΡΗΓΟΣ: **xοριδτικο**




Funded by the
Erasmus+ Programme
of the European Union



3 ORDUKO FORMAKUNTZA ETA MATERIALAK

**HEZKUNTZA INTEGRAZIOAN
APLIKATUTAKO METODOLOGIAREN
ETA EZAGUTZA- JABETZAREN
ARRAKASTA, IKASLE
BAKOITZARENTZAT ESKAINTZA
EGOKIA AUKERATUZ.**



https://drive.google.com/drive/folders/1_U7L2mDvLS2UgWxqQVDMZnbWoHQ1yDQA?usp=share_link

Funded by the
Erasmus+ Programme
of the European Union



CIFP Tolosaldea LHII

**ESKOLA-INTEGRAZIOAN ETA EZAGUTZAK
ESKURATZEAN APLIKATUTAKO
METODOLOGIAREN ARRAKASTA, NOLA
HAUTATU IKASLE BAKOITZARENTZAKO
ESKAINZA EGOKIA.**



(Ainscow, Booth eta Dyson, 2006; Echeita eta Duk, 2008) Eskola inklusiboa: haur eta gazte guztien hezkuntzarako sarbidea bermatzen duena da, guztiontzako aukera-berdintasuna, justizia eta ekitatea bermatuko dituen kalitatezko hezkuntza-sistema.

Eskola inklusibo batek espazio sozial demokratiko eta parte-hartzaileak eraiki behar ditu, sozialki aberastuak, ikaskuntza eta bizikidetzaren erraztearen garrantzia azpimarratuko dutenak; ikastea, komunikatzea, elkarri eragitea eta beste talde sozial batzuetako kideengana hurbiltzea.

Ikasle bakoitza gela heterogeneoan egongo da. Eskolak ere heterogeneoak izango dira.

Ikaslearen graduatu-profilean ezarritako oinarritzko gaitasunak lortzeko, haur guztiek ahalik eta gehien garatu ahal izango dituzte beren gaitasun pertsonalak.

ANIZTASUNA ESKOLA-INKLUSIOAN:

- KULTURA-ANIZTASUNA.
- GAITASUN-ANIZTASUNA.
- GENERO-ANIZTASUNA.
- SEXU-JOEREN ANIZTASUNA.
- BALIABIDE SOZIOEKONOMIKOEN ANIZTASUNA.



HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO BEHAR ESPEZIFIKOAK

DESGAITASUNAREN EDO JOKABIDE-NAHASTE LARRIEN ONDORIOZKO HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIAK.

- **DESGAITASUN PSIKIKOAK, ENTZUMENENKOAK EDO IKUSMENENKOAK, DESGAITASUN FISIKOAK ETA ESPEKTRO AUTISTAKO NAHASMENDUAK.**
- **DESGAITASUN ANITZAK**
- **GORRERIA**
- **PORTAERA-ARAZO LARRIAK**

BERANDU SARTZEA HEZKUNTZA SISTEMAN

BALDINTZA PERTSONALAK EDO ESKOLA-HISTORIARI BURUZKOAK (GAIXOTASUNA...)

DESBERDINTASUN SOZIALEKO EGOERAK.

• **IKASTEKO ZAILTASUN ESPEZIFIKOAK**

1. **MEZUA ULERTZEKO ETA SORTZEKO**
 2. **IRAKURTZEKO ETA IDAZTEKO**
 3. **KALKULU ARITMETIKOAK EGITEKO**
 4. **ARRETA ETA/EDO MANTENTZELANAK**
 5. **AGRESIBITATEA KONTROLATZEKO**
 6. **IKASKUNTZA-ERRITMO MOTELAGOA IZATEKO.**
 7. **HIZKUNTZA-ARAZO ESPEZIFIKOAK IZATEKO.**
 - 8.
 9. **ADIMEN-GAITASUN HANDIA**
- **ARRETA-GABEZIAGATIKO ETA HIPERAKTIBITATEAGATIKO NAHASMENDUAK**

IKASLEEN ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO BALIABIDEAK

- 1) **HEZKUNTZA INDARTZEKO BERARIAZKO PROIEKTUAK.**
- 2) **PEDAGOGIA TERAPEUTIKOAN ESPEZIALIZATUTAKO IRAKASLEAK.**
- 3) **HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO ESPEZIALISTAK.**
- 4) **CURRICULUM DESBERDINEKO PROGRAMAK.**
- 5) **ESKOLATZE OSAGARRIKO PROGRAMAK.**




Lankidetzaren honetan datza: elkarrekin lan egitea, elkarri laguntzea, animatzea, besteekiko interesa piztea, taldeko kide bakoitzaren premiei arreta jartzea helburu komunak lortzeko, arrakasta lortzea da, ez bakarrik norberarentzat, baita taldekide guztientzat ere. Izan ere, "denok gara onak zer baitetan, inor ez da ona ezertan".

ETHAZI EREDUAREN EZAUGARRIAK

- INTERMODULARITATEA
- IKASTEKO ESPAZIOAK EGOKITZEA
- ZIKLOKO IRAKASLEEK AUTOGESTIONATUTAKO TALDEA
- GAITASUNEN GARAPENEAN EBOLUZIONATZEKO EBALUAZIOA

Ikasleei beren ikaskuntza garatzeko planteatzen dizkiegun egoera problematikoak dira erronkak. Egoera horiek aurre egin beharko dioten lan-errealitatearen antzekoenak izan behar dute, eta, beraz, tokiko enpresak funtsezko faktoreak dira erronka horiek sortzeko. Haien lankidetzaren oso interesgarria da taldeek aurre egin beharko dieten arazoak eta talde bakoitzak egin beharko dituen emaitzen aurkezpena errealitate bihurtzeko.



EBALUAZIOAREN IKUSPEGIA

Helburua da ikasleek lortu beharreko lorpenen aurrean jarrera aktiboa eta kontzientea izatea.

Pertsona guztiek prest egon behar dute egoera aldakorrei eta bidean sortzen ari diren erronka eta behar berriei aurre egiteko.

Horregatik, ingurune aldakor horri erantzuteko, XXI. mendeko profesionalek etengabeko ikaskuntzarako gaitasunak garatu behar dituzte. Hau da, etengabe ikasteko gai izan behar dute.

Ebaluazio-sistemak lagundu egin behar die zeregin hori lortzen eta haien bilakaeraz jabetzen, ikasi eta garatu behar dutena ulertuz.

EBAULAZIOAREN DISEINUA

- 1.- ZER IKASI: Argi izan ikasleek beharko duten. Lanbide-profila definitzea.
- 2.- IKASKUNTZA-IBILBIDEA DISEINATZEA: Ikaskuntza-prozesuaren ikuspegi orokorra izatea.
- 3.- KONPROMISOAK hartzeko TRESNAK definitzea: Ikaskuntzaren erantzukizuna aktibatzea.
- 4.- ERRONKAK diseinatzea: Ikaskuntza-testuinguruak definitzea.
- 5.- KALIFIKAZIOA: Moduluaren azken nota lortzea.



GAITASUNAK

Arazo jakin bati aurre egiteko garatu beharreko alderdi teknikoak eta jarrerazkoak.

ERRUBRIKEN EZAUGARRIAK

- Hainbat ikaskuntza-mailatan banatutako gaitasuna.
- Ikaskuntza-prozesuaren gida eta sustatzailea.
- Ikaskuntza-prozesuaren ikuspegi orokorra.
- Helburuak zehaztea eta erronkak diseinatzea.


FEEDBACK

Feedbacka da nola ikusten dituzten ikasleak beren prestakuntza-prozesuan, eta nola ikusten duten hausnartzen duten. Hausnarketa hori, era berean, bere eboluzioa da.

Bere eskumenak eta lankideenak garatzeko konpromisoa sustatzen du.

IKASLEENTZAKO ONURAK

- Ikasketaren protagonista bihurtzen laguntzen die.
- Erronkaren garapenean egiten duten jarduerari buruzko ebidentziak ematen dizkie.
- Hobekuntza-zirkulu bat osatzeko konpromisoa hartzea errazten du.



ETHAZI EREDUAN SARTZEA

BERMATZEA

ETHAZI + DUA (IKASKUNTZAREN DISEINU UNIBERTSALA)

Inklusioa eta hezkuntza-ekitatea ez dira pribilegio bat, guztion eskubidea baizik. Beraz, jada ez dago desgaitasunen bat duen pertsonarik, baizik eta saihestu beharreko ikaskuntza-egoera desgaituak. DUA printzipio multzo bat da, eta, horien bidez, diseinu hori ezagutzen duten irakasleek jarraibideak egin ditzakete ikasle guztien beharrak asetzeko. Bi dinamika horien konbinazioak (ETHAZI eta DUA) ikasteko zailtasunak dituzten ikasleen prestakuntzaren eta enpleguaren arrakasta bermatuko du.


DISLEXIA-ON PROIEKTUA

Lehen urratsak DISLEXIarekin batera egiten ari dira, DISLEXIA-ON proiektuaren bidez. Dislexia duten ikasleentzat oztoporik gabeko eskolak sortzea da helburu nagusia. Irakasleek ikasgelan dislexiari nola aurre egin hausnartzen eta ikasten dute.

Gainera, aplikatu behar ditugun arauak onuragarriak dira ikasle guztientzat, ez bakarrik dislexia dutenentzat.

3 ORDUKO FORMAKUNTZA ETA MATERIALAK

**IKASKETARAKO ETA BESTE ESKOLA
EKINTZETARAKO MOTIBATZEA
DESGAITASUNAREN BAT DUTEN
IKASLEAK KURTZO TEKNIKOETAN
PARTE HARTUAZ.**



https://drive.google.com/drive/folders/1KgQd3fNAF-1cgP-MWBmrLxLuKadNNTeSG?usp=share_link

Funded by the
Erasmus+ Programme
of the European Union



Ekonomiska sola Novo Mesto

**ERREFUXIATU ETA MINORIEN INKLUSIOA
ESKOLA EKINTZETAN.**



BEHAR BEREZIAK DITUZTEN HAURREN INKLUSIOA ESKOLAKO TESTUINGURUAN Hezkuntza Behar Bereziak dituzten ikasleak

- Adimen- desgaitasuna duten ikasleak.
- Itsutasuna edo ikusmen-arazoak duten ikasleak.
- Gortasuna edo entzumen- arazoak duten ikasleak.
- Hizkuntza- arazoak dituzten ikasleak.
- Desgaitasun fisikoak dituzten ikasleak.
- Epe-luzeko gaixotasunak dituzten ikasleak.
- Ikasketetarako zailtasun zehatzetan defizita duten ikasleak.
- Nahasmendu autista duten ikasleak.
- Portaera- nahasmendu eta nahasmendu emozionalak dituzten ikasleak.



Programa motak

- Moldatutako edukiekin eta laguntza profesional gehigarriekin egindako Hezkuntza programa (ohiko lehen hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako eskoletan)
- Moldatutako hezkuntza programa desgaitasun espezifikoak dituzten ikasleentzako hezkuntza estandar baliokideak
- Moldatutako hezkuntza programa hezkuntza estandar baxuagoekin
- Hezkuntza bereziko programa desgaitasun intelektual arina, gogorra edo sakonak dituzten ikasleentzako



Orientazio prozedura

- Behaketa hasteko aplikazioa gurasoek, eskolak edo ikasleak hasiko dute.
- Dokumentazioa eskolak eta beste profesionalak (medikuak, psikologikoak, etc.) kudeatuko dute.
- Ikaslearen behaketa orientazio-talde batek eramaten du eta talde honek aholkuak ematen ditu.
- Eskolan azterketa egingo da ea laguntza eskaini ahal duen.
- Orientazio erabakia argitaratuko da.



LAGUNTZA- PROFESIONAL MOTAK

Bigarren Hezkuntzako eskolak

Bigarren Hezkuntzako eskoletan, behar bereziak dituzten ikasleek laguntza mota desberdinak eduki ditzakete:

- 2 orduko laguntza profesional desberdinek ikasleek dituzten gabeziak gainditzen laguntzeko (pedagogo, pedagogo soziala, pedagogo inklusiboa, psikologo edo hizkuntza- terapeuta).
- 2 orduko laguntza Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako ikasleei laguntza eskaintzeko.
- Beste programa batzuetan, 2 orduko ikasteko laguntza epe-luzerako gaitasunak dituzten ikasleei laguntzeko.
- Orientazio ordu bat.

Laguntza irakaslea

- ETENGABEKO LAGUNTZA IRAKASLEA:
- Desgaitasun fisiko handiak dituzten ikasleak, itsuak (Lehen Hezkuntzako eskoletan- lehen hirurteko tartean, ala geroago salbuespen gisa)
- BEHIN- BEHINEKO LAGUNTZA IRAKASLEA:
 - Bigarren Hezkuntzako eskoletan (itsuak, ikusmenean arazoak eduki ditzaketan ikasleak, autistak).

Norbanakoarentzako Programak

- Eskolak behar bereziak dituen ikaslearentzat laguntza gehigarriaren antolakuntza eta garapena duen norbanako programa prestatu behar du:
 - Dituen gabeziak gainditzeko,
 - Orientazio zerbitzuez hornitzeko,
 - Ikasketa laguntzaz hornitzeko.
- Baita ere ondorengo hauek zehaztu behar dira:
 - Ikasketa- esparru bakoitzeko helburuak eta lan formak,



Egokitzapenak eta baliabideak

- MATERIALAK: oharren fotokopiak, koloreetako abisuak, ordenagailu eramangarria, hiztegia, ordenagailua, material digitalak...
- ESPAZIOAREN ETA BALIABIDEEN EGOKITZAPENA : Aulkien antolaketa, aulki egokituak, mahai egokituak...
- BALORAZIO ETA EBALUAZIOREN EGOKITZAPENAK: Ahozkoaren balorazio eta ebaluazioan enfasia, ebaluazio mixtoa, aurreikusitako ebaluazioa, testu formatu moldatua, denbora gehigarria, ikasorduetatik kanpoko laguntza,...
 - Behar bereziak dituen ikaslea taldean txertatzeko estrategiak,
 - Beharrezkoak diren egokitzapenak egingo dira ezagutzaren kontrola, balorazioa eta ebaluazioa egiteko,
 - Hezkuntzara egokitutako teknologia lagungarria ,
 - Laguntza fisikoaren hornidura,
 - Klaseen ordutegia, etc.

MIGRANTEEKIN LANA

DRPD - Boluntariotza Sustatzeko Erakundea

- Novo Mesto Boluntariotza Sustatzeko Erakundea (DRPD) gobernuz kanpoko erakunde humanitarioa da ongizate soziala, kulturala eta gazteriaren esparruetan lan egiten duena.
- Ongizate Sozialetako programak sozialki baztertutako taldeekin lan egiteko orientatuta daude, bereziki migrante eta ijitoekin; baliabide material, kultural eta sozialak eskura edukitzeko aukera urriak dituzte, eta gizartean berdintasunez integartzeko aukera gehiago eman nahi zaizkie.
- Programaren helburua hainbat ekintza bitartez kolektibo hau ahalbideratzea da, publiko generalaren kontzientzia areagotuz eta inklusio hobeko bat lortuz .
- Programak:
 - Haurtzaroko eguneko zentroa,
 - Haur ijitoentzako eguneko zentroa
 - Atzeritarren integrazioarako laguntza

ZRC SAZU - Esloveniako Emigratio eta inmigrazioarako Institutua

- Bai Eslovenia baita nazioarteko migrazio prozesuei buruzko ikerketa interdisziplinarietan konprometita daude:
- Migrazioaren esparruan, ikerketak Esloveniako inmigrazioa, inmigrazio politika, kultura eta artea, identitate espaziala, etnikoa, kulturala, genero- identitatea, hezkuntza, akulturazioa, sozializazioa, multikulturalismoa, asimilazioa, nahitaezko migrazioa eta migrazio politikoa, ikasketa femeninoak, lan-migrazio garaikidea.




Filantropia Esloveniarrak

- Migrazio Programak gaur egungo migrazioaren hainbat aspektu kudeatzen ditu.
- Orientazioa, informazioa, laguntza psikosoziala eta psikoterapeutikoa. migrantei aholkularitza eskaintzen du.
- Migratzaile eta errefuxiatuen integrazioa beraien testuinguru berrira ahalbideratzeko hainbat ekintza antolatzen dituzte. Boluntarioak erabiltzen dituzte, laguntza eta aholkuak eskainiz.

3 ORDUKO FORMAKUNTZA ETA MATERIALAK


ERREFUXIATU ETA MINORIEN INKLUSIOA ESKOLA EKINTZETAN.



https://drive.google.com/drive/folders/11cmEu0jsa-W4-69iYhrq54v95Lq32lgO?usp=share_link

25 ORDUKO FORMAKUNTZA ETA MATERIALAK


IN AS IN INCLUSION



https://drive.google.com/drive/folders/1Uczpi66xOrs_UNfVcl_oKYfQ6zSI6NMu?usp=share_link

IN AS IN INCLUSION APP

PLAY STORE-N ANDROIDERAKO
ESKURAGARRI



<https://play.google.com/store/apps/details?id=io.kodular.antoniofagoncalves.INasinINclusion>



HEZKUNTZA INKLUSIBOA SUSTATZEKO ELKARLANEAN



www.inasininclusion.eu



<https://www.facebook.com/profile.php?id=100063972767304>



inasininclusion@gmail.com

Funded by the
Erasmus+ Programme
of the European Union

